

2014ko UZTAILAREN 15eko UDALBATZARRA
PLENO DE 15 DE JULIO DE 2014

BERTARATUAK / ASISTEN:

ALKATEA / ALCALDESA: M^a SOL MARGARITA TABERNA IRATZOKI

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES Y CONCEJALAS:

JON ABRIL OLAETXEA, FERNANDO BERASAIN GAINZA, NEKANE PEREZ IRAZABAL, GARAZI TABERNA TELLETXEA, JOSE MANUEL PORTU BERASATEGUI, ANDREA GOURAUD ALZUGARAY, SANTIAGO ALZUGUREN MACHICOTE, ISIDORA AGUIRRE UBIRIA, JUAN LOSA OCARIZ.

IDAZKARIA / SECRETARIA: PILAR CHUECA INTXUSTA.

BERTARATU EZ DIRENAK / NO ASISTEN:

UGAITZ ADO PRIETO.

Tokia: BERAko Herriko Etxea
Eguna: 2014-07-15
Ordua: 19:35
Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia

Lugar: Casa Consistorial de BERA
Día: 15-07-2014
Hora: 19:35
Tipo sesión: ordinaria, 1^a convocatoria.

TRATATZEKO GAIK:

ASUNTOS A TRATAR:

1.- AZKENEKO AKTA ONARTZEA.-

1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.-

**2014.eko ekainaren 10ean egindako bilera-
ren akta ikusirik, aho batez, ONARTU
DUTE.**

**Vista el acta de la sesión celebrada el día 10 de
junio de 2014, por unanimidad SE APRUEBA.**

**2.- UDAL PLAN OROKORRAREN ALDA-
KETA EGITURATZAILEA, 9. POLIGO-
NOKO 4. LUR-ZATI, SK-1 eta S-9AN, 12.
SEKTORE BERRIA SORTZEKOA, (KA-
XERNA ETA BIDASOA KARRIKA ZO-
NALDEA), BEHIN BEHINEKO ONES-
TEA.**

**2.- APROBACIÓN PROVISIONAL DE MO-
DIFICACIÓN ESTRUCTURANTE DEL
PLAN GENERAL MUNICIPAL DEL S-9,
SK1 Y PARCELA 4 DEL POLÍGONO 9
PARA LA CONSTITUCIÓN DE UN NUEVO
SECTOR 12 (ZONA KAXERNA Y CALLE
BIDASOA).**

Alkateak azaldu du gaia. Horren ondotik, aho batez, legeak eskatutako gehiengo osoa izanik, honako erabaki hartu dute:

La Alcaldesa explica el asunto. Tras ello, por unanimidad, que representa la mayoría absoluta legalmente exigida, adoptan el siguiente acuerdo:

Ikusirik, Udal Plan Orokorren aldaketa egituratzailea egiteko espedientea, 9. poligonoko 4. lur-zatia, SK-1 eta S-9an, 12. Sektore berria sortzekoa (Kaxerna eta Bidasoa karrika zonaldea).

Visto expediente de modificación de determinaciones de ordenación estructurante del S-9, SK-1 y parcela 4 del polígono 9, para constituir un nuevo sector S-12 del Plan General Municipal (Zona Kaxerna y calle Bidasoa).

Dokumentazioa:

Documentación:

- Hasiera bateko onspena: Proiektua Xabier Lopez de Uralde arkitektoak egina, 2010eko azarokoa.

- Aprobación inicial: Proyecto redactado por el arquitecto Xabier López de Uralde de fecha noviembre de 2010.

Behin behineko onspena: Proiektua Xabier Lopez de Uralde eta Gotzon Olarte Gorosabel arkitektoek egina, 2014ko ekainakoa.

- Aprobación provisional: Proyecto redactado por los arquitectos Xabier López de Uralde y Gotzon Olarte Gorosabel, de fecha junio de 2014.

2010eko abenduaren 23an Udalbatzak espediente hau hasiera batez onartu zuen.

Con fecha 23 de diciembre de 2010 el Pleno aprobó inicialmente este expediente.

Jendaurreko epean hamar alegazio aurkeztu ziren.

En el plazo de exposición pública se presentaron diez alegaciones.

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitzaren Departamentuak 2011ko urtarrilaren 18an hasiera bateko onspena eta zegokion dokumentazioa jaso zuen 35/2002 Foru Legearen 70.8 artikulua xedatzen duen txosten orokorra egin zezan. Txosten hau 2011ko irailaren 9an Udalak hartu zuen.

El 18 de enero de 2011 tuvo entrada en el Departamento de Ordenación del Territorio y Vivienda la aprobación inicial y la documentación pertinente para la elaboración del informe global establecido en el artículo 70.8 de la Ley Foral 35/2002, el cual fue recibido en este Ayuntamiento el 9 de septiembre de 2011.

2011ko apirilaren 29an Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak aldaketa honen aldeko txostena bidali zion Udalari.

El 29 de abril de 2011 la Confederación Hidrográfica del Cantábrico remitió informe favorable sobre esta modificación.

Espedientea behin behineko onspena egiteko prest zegoen baina 2011ko apirilaren 19an egin zen Osoko bilkuran erabaki zuten egin gabe uztea Berako merkataritzari buruz ari ziren azterketaren konklusioak izan arte.

El expediente estaba preparado para su aprobación provisional pero en el Pleno celebrado el 19 de abril de 2011 se decidió esperar a las conclusiones del estudio sobre el comercio en Bera que se estaba realizando.

Kontuan hartuz Xabier Lopez de Uralde eta Gotzon Olarte Gorosabel arkitektoek aurkeztutako alegazioei buruz eginiko

Teniendo en cuenta las respuestas emitidas por los arquitectos Xabier López de Uralde y Gotzon Olarte Gorosabel respecto a las alega-

erantzunak, lehen aipatutako 2014ko ekaineko dokumentazioan daudenak.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 79.2), 70. eta beste artikuluko batzuekin bat etorritik.

Legeak eskatutako gehiengo osoz, ERABAKI DUTE:

1) Aurkeztutako alegazioei buruz Xabier Lopez de Uralde eta Gotzon Olarte Gorosabel arkitektoek emandako erantzunak, 2014ko ekaineko dokumentuan daudenak, onestea eta modu horretan jarritako alegazioei erantzutea.

2) Hori dela eta, Udal Plan Orokorren aldaketa egituratzailea, 9. poligonoko 4. lurzati, SK-1 eta S-9an, 12. Sektore berria sortzekoa (Kaxerna eta Bidasoa karrika zonaldea), 2014ko ekainean Xabier Lopez de Uralde eta Gotzon Olarte Gorosabel arkitektoek egina, behin behineko onestea.

3) Nafarroako Gobernuak Sustapen Departamentura behin-betiko onar dezan espediente osoa bidaltzea.

4) Erabaki hau interesatuei bidaltzea dagoen arkitektoaren txostenaren kopiarekin batera eta adieraztea erabakia tramitezkoa denez ez dagoela inolako errekurtsioa tartekatzerik.

3.- “ZALAIN INDUSTRIALDEAKO URZIKINAK BILTZEKO SISTEMA OROKORRA”REN PROIEKTUA ONESTEA: NILSA.-

Alkateak gaia eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, aho batez, honako erabakia hartu dute:

ciones presentadas que consta en la documentación de junio de 2014, antes reseñada.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 79.2), 70, y otros de la Ley Foral 35/2002 de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

Con el quórum de mayoría absoluta, legalmente exigido, SE ACUERDA:

1) Aprobar las respuestas sobre las alegaciones presentadas, que constan en la documentación de junio de 2014, redactada por los arquitectos Xabier López de Uralde y Gotzon Olarte Gorosabel y resolver las alegaciones en el sentido expresado en la misma.

2) En consecuencia, aprobar provisionalmente la modificación de determinaciones de ordenación estructurante del S-9, SK-1 y parcela 4 del polígono 9, para constituir un nuevo sector S-12 del Plan General Municipal (Zona Kaxerna y calle Bidasoa), redactada por los arquitectos Xabier López de Uralde y Gotzon Olarte Gorosabel con fecha junio de 2014.

3) Remitir el expediente completo al Departamento de Fomento del Gobierno de Navarra para su aprobación definitiva.

4) Remitir este acuerdo a las partes interesadas junto con la copia del informe de los arquitectos que les corresponda, indicándoles que al ser un acto de trámite no cabe recurso alguno.

3.- APROBACIÓN DEL PROYECTO “SISTEMA GENERAL DE RECOGIDA DE LAS AGUAS RESIDUALES DEL POLIGONO DE ZALAIN”: NILSA.

Tras explicar la Alcaldesa el tema y la Secretaria el procedimiento, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

Ikusirik NILSAk aurkeztutako idatzia non “(Bera) Zalain industrialdeko ur zikinak biltzeko sistema orokorra” proiektuaren tramitazioa administratiboa bukatu dela eta hau aldekoa izan denez aipatutako proiektuaren onespena eskatzen duen.

DOKUMENTAZIOA: 2012ko abenduko datako Gregorio Berrozpe Ullate Bideetako ingeniariak egindako proiektua.

ERABAKI DUTE:

1) Lehen aipatutako “(Bera) Zalain industrialdetako ur zikinak biltzeko sistema orokorra” proiektua onartzea.

2) Erabaki hau interesatuari jakinaraztea.

4.- BAKE EPAILE TITULARRA ETA ORDEZKOA IZENDATZEA.

Idazkariak gaia azaldu du eta, aho batez, legeak eskatutako gehiengo osoa izanik, honako erabakia hartu dute:

Botere Judizialari buruzko lege Organikoaren 101. Artikuluari eta Bake Epaileri buruzko ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduaren 5. Artikuluari jarraikiz, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udal eta Bake Epaitetikoko Taulan Bake Epaille Titularra eta Ordezkoaren karguak betetzeko deialdi publikoa egin zen.

Emandako epea pasa ondoren eskaera bat aurkeztu dute epaile titularren kargurako, epaile ordezkorako, berriz, inor ez.

Aipatutako Erregelamenduaren 6. artikularekin bat etorriz.

Legeak eskatutako gehiengo osoa beteaz izanik, ERABAKI DUTE:

1) IGNACIO QUIROGA TAPIA Bake

Visto escrito presentado por NILSA en el que comunican que ha finalizado favorablemente la tramitación administrativa de la obra “Sistema general de recogida de las aguas residuales del polígono de Zalain (Bera)”, por lo que solicitan la aprobación del citado proyecto.

DOCUMENTACION: Proyecto redactado por el Ingeniero de Caminos Gregorio Berrozpe Ullate, de fecha diciembre de 2012.

SE ACUERDA:

1) Aprobar el proyecto “Sistema general de recogida de las aguas residuales del polígono de Zalain (Bera)”, antes reseñado.

2) Notificar este acuerdo a la interesada.

4.- ELECCIÓN DE JUEZ/A DE PAZ TITULAR Y SUSTITUTO/A.-

La Secretaria explica el asunto y, por unanimidad, que representa la mayoría absoluta legalmente exigida, adoptan el siguiente acuerdo:

De acuerdo con el artículo 101 de la Ley Orgánica del Poder Judicial y el artículo 5 del Reglamento 3/1995, de 7 de junio, de los Jueces de Paz se realizó convocatoria pública en el Boletín Oficial de Navarra y Tablones de Anuncios del Ayuntamiento y Juzgado de Paz para cubrir los cargos de Juez titular y sustituto.

En el plazo señalado se ha presentado una solicitud para el cargo de Juez/a de Paz titular no así para el cargo de Juez sustituto/a

De acuerdo con lo establecido en el artículo 6 del citado Reglamento.

Por la mayoría absoluta legalmente exigida, SE ACUERDA:

1) Elegir Juez de Paz titular a IGNAZIO QUI-

Epaile titularraren kargu betetzeko aukeratzea.

2) Erabaki hau Nafarroako Auzitegi Nagusira eta interesatuari bidaltzea.

5.- HERRI LURRA LAGATZEKO KANON ALDATZEKO ESKAERA (P. 6, L. 69): SISTELEC S.L.

Alkateak zera aipatu du:

Sistelec-ek Larunen okupatzen duen herri-lurraren kanona jaistea eskatu du horko antenak gero eta irabazi txikiago ematen duelako, eta enpresarekin solastu ondoren %50era jaistea eskatzen dute.

J. M. Portuk dio:

Haien aldetik hitzarmena errespetatzea 2016arte (bukatzen den urtea) eta gero negoziatu baldintza berriak.

Alkateak erantzun dio:

Gertatzen ahal da zerbitzua uztea, haien gustua ez da kanona jaistea baina zerbitzua mantenduko da.

Santiago Alzugurenek dio:

Alkateak erran duen bezala hitz egin zuten Gobernu Batzordean.

Bozketa eginda hauxe da emaitza:

Proposamenaren alde: 6 boto (4 Aralar eta 2 EAJ/PNV).

Proposamenaren aurka: 4 (3 Bildu eta 1 UPN).

Abstentzioak: 0.

Beraz, honako erabakia hartu dute:

Ikusirik, Sistelec s.l. enpresak eginiko eskaera non Larungo herri lurra (P. 6, L. 69) okupatzeagatik ordaintzen ari den kanona %50era jaistea, antenaren irabaziak gero

ROGA TAPIA.

2) Remitir este acuerdo al Tribunal Superior de Justicia de Navarra y al interesado.

SOLICITUD MODIFICACIÓN CANON CESIÓN TERRENO COMUNAL (P.6, p. 69): SISTELEC S.L.

La Alcaldesa informa:

Sistelec ha solicitado la rebaja del canon por la ocupación de terreno comunal en Larun debido a las cada vez menores ganancias por la antena y tras conversaciones con la empresa solicitan la rebaja del 50% del canon actual.

J. M. Portu manifiesta:

Por su parte proponen respetar el convenio hasta el 2016 (año en que finaliza) y luego negociar nuevas condiciones.

La Alcaldesa le contesta:

Puede ocurrir que desaparezca el servicio, no es de su agrado bajar el canon pero así se mantendrá el servicio.

Santiago Alzuguren:

Como ha explicado la Alcaldesa se comentó en la Junta de Gobierno Local.

Realizada la votación resulta:

A favor de la propuesta: 6 votos (4 Aralar y 2 EAJ/PNV).

En contra de la propuesta: 4 (3 Bildu y 1 UPN).

Abstenciones: 0.

Por lo que se adopta el siguiente acuerdo:

Vista solicitud de la empresa Sistelec s.l. en la que solicita la rebaja del 50% en el canon que abona por la ocupación de terreno comunal en

eta murriztuagoak direlako.

Kontuan hartuz, enpresak dioen bezala zaila egiten zaiela gaurko kanona ordaintzea.

Kontuan hartuz, neurri honekin Udalaren asmoa dela ematen duten zerbitzua bermatzea.

ERABAKI DUTE:

1) Sistelec s.l. enpresa Larungo herri lurra (P. 6, L. 69) okupatzeagatik ordaintzen ari den kanona %50a jaistea, aurten hasita.

2) Erabaki hau Kontuhartzaitzari eta interesatuari jakinaraztea.

6.- “ANTXETA IRRATIA, ONG PAUSU MEDIA” KOMUNIKABIDEA UDAL INTERES GISA DEKLARATZEA.

Alkateak azaldu du:

Larungo Sistelec s.l.aren antenan jartzeko bi eskaera daude udal interes gisa deklaratzeko, hots, ONG PAUSU MEDIA (Antxeta irratia) eta ABIAN KOMUNIKAZIO S.L., horrelako deklarazioa baldin babadute ez baitute ordaindu behar instalazioarengatik.

Bi eskaeretatik, haien ustez, batek betetzen du deklarazioa egiteko, alegia, ONG PAUSU MEDIA, irabazi gabeko elkarte da eta euskaraz emititzen du, bestea, ABIAN KOMUNIKAZIO s.l. berriz, enpresa bat da. Beraz, haien proposamena da ONG PAUSU MEDIA elkarteari udal interes gisa deklaratzea.

Horren ondotik, denek bat egin dute proposamenarekin eta honako erabaki hau hartu dute:

Ikusirik, Iparnet s.l. enpresak eginiko eskaera non Larun mendian Sistelec s.l.

Larun (P. 6, p.69) por ser cada vez menores las ganancias que genera la antena.

Teniendo en cuenta que según manifiesta la empresa abonar el canon actual les resulta difícil.

Teniendo en cuenta que con esta medida el Ayuntamiento pretende garantizar el servicio que ofrecen.

SE ACUERDA:

1) Rebajar a Sistelec s.l. el 50 % del canon por ocupación de terreno comunal en Larun (P. 6, p. 69), desde este año inclusive.

2) Notificar este acuerdo a la interesada y a Intervención.

6.- DECLARACIÓN COMO DE INTERÉS MUNICIPAL EL MEDIO DE COMUNICACIÓN “ANTXETA IRRATIA, ONG PAUSU MEDIA”.

La Alcaldesa informa:

Hay dos solicitudes de declaración de interés municipal para su instalación en la antena de Sistelec s.l. en Larun, a saber, ONG PAUSU MEDIA (Antxeta irratia) y ABIAN KOMUNIKAZIO s.l., si se dispone de esta declaración no tienen que pagar por instalarse.

De las dos solicitudes, en su opinión, una cumpliría para hacer dicha declaración, en concreto, ONG PAUSU MEDIA, ya que es una asociación sin ánimo de lucro y emiten en euskera., al contrario, ABIAN KOMUNIKAZIO s.l. es una empresa.

Por ello, la propuesta es declarar de interés municipal a la Asociación ONG PAUSU MEDIA.

Tras ello, todos y todas las concejalas muestran su conformidad con la propuesta y adoptan el siguiente acuerdo:

Vista solicitud realizada por la empresa Iparnet s.l. en la que solicita la declaración de interés

enpresak kudeatzen duen telekomunikazio espazioan-azpiegituran, ONG PAUSU MEDIA Elkarteak zein ABIAN KOMUNIKAZIO s.l. enpresa behar teknikoa asetzeko, Udalak interes munizipalerako deklaratzeari eskatzen duen.

Kontuan hartuz, 2 eskaera horietatik ONG PAUSU MEDIA Elkarteak irabazi gabeko elkarte dela eta euskeraz emititzen duela eta ABIAN KOMUNIKAZIOA s.l. enpresa bat dela.

ERABAKI DUTE:

1) Lehen emandako arrazoiengatik ONG PAUSU MEDIA Elkarteak udal interes gisa deklaratzeari Larungo Sistelec s.l.-k duen telekomunikazio azpiegituran instalatzeko ondorioetarako.

2) Lehen emandako arrazoiengatik ABIAN KOMUNIKAZIO s.l. enpresa udal interes gisa ez deklaratzeari.

3) Erabaki hau eskatzaileei eta Sistelec s.l. enpresari jakinaraztea.

7.- BANDOAK ETA ALKATEAREN EBAZPENAK.-

Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen hauetaz jakinen gainean gelditu dira:

1) Bandoak: B14/2014.

2) Ebazpenak: 2014ko ekainaren 5eko 126. ebazpenetik 2014ko uztailaren 8ko 151.era arte.

8.- ESKARIAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEEN KONTROLA.

municipal para cumplir las necesidades técnicas de la Asociación ONG PAUSU MEDIA y la empresa ABIAN KOMUNIKAZIO s.l. en la infraestructura de telecomunicaciones que gestiona la empresa Sistelec s.l en el monte Larun.

Teniendo en cuenta que de estas dos solicitudes la Asociación ONG PAUSU MEDIA es una asociación sin ánimo de lucro y emite en euskera y que ABIAN KOMUNIKAZIO S.L. es una empresa.

SE ACUERDA:

1) Por las razones antes señaladas declarar de interés municipal a la Asociación ONG PAUSU MEDIA a los efectos de su instalación en la infraestructura de telecomunicaciones de Sistelec s.l. en Larun.

2) Por las razones antes señaladas no declarar de interés municipal a la empresa ABIAN KOMUNIKAZIO s.l.

3) Notificar este acuerdo a las solicitantes y a la empresa Sistelec s.l.

7.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.-

Quedan enteradas y enterados de los siguientes bandos y resoluciones de Alcaldía:

1) Bandos: B14/2014.

2) Resoluciones: De la resolución nº 156 de 5 de junio de 2014 a la nº 151 de 8 de julio de 2014.

8.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.

Santiago Alzugurenek proposatu du:
Nafarroako Emakumezkoen Arpana Txapelketa irabazi dutenei zoriontzea.

Alkateak dio, horixe erran behar ziela eta baita ere, zoriontzea Nafarroako Herriarteko Pilota Txapelketa irabazi dutenei.

Zinegotzi guztiak ados agertu dira.

Nekane Perezek dio Gazako egoera dela eta baduela mozio bat gai zerrendatik kanpo sartzeko.

Gai zerrendatik kanpo, premiazko bozketa egin ondoren, aho batez, legeak eskatutako gehiengo osoa bete izanik, honako gai hau tratatu dute:

9.- GAZA ERASOTZEKO ISRAELEK EZARRITAKO ZIGOR KOLEKTIBOA SALATZEKO ADIERAZPEN INSTITUCIONALA.

Nekane Perezek gaia azaldu eta irakurri ditut adierazpenaren puntuak.

Juan Losak dio:
Udalak ez du kanpoko arazoetan eskumenik, hala ere aldeko botoa emanen du baina baita ere hau beste lurraldeei zabaltzen ahal da (Ukrania, Kongo, Afrika.....),

Nekane Perezek erantzuten dio:
Ez dela horrela baina hark proposamenik ekartzen badu berak oso gustura tratatu eta eztabaidatuko du.

Bien arteko eztabaida dute munduko egoerari buruz eta bukatu du Alkateak gonbidatzen proposamenak ekartzera.

Santiago Alzuguren propone felicitar a las ganadoras del Campeonato Femenino de Arpana de Navarra.

La Alcaldesa comenta que lo iba a proponer, así como, también, felicitar, a los ganadores del Campeonato de Pelota Interpueblos de Navarra.

Todos los concejales y concejalas muestran su conformidad.

Nekane Perez comunica que tiene una moción para tratar fuera del orden del día sobre la situación de Gaza.

Fuera del orden del día, previa votación de urgencia, por unanimidad, que representa la mayoría absoluta legalmente exigida, se trata el siguiente asunto:

9.- DECLARACIÓN INSTITUCIONAL PARA DENUNCIAR EL CASTIGO COLECTIVO IMPUESTO POR ISRAEL EN LOS ATAQUES A GAZA.

Nekane Pérez explica el tema y lee los puntos de la declaración.

Juan Losa manifiesta:
El Ayuntamiento no tiene competencias en asuntos exteriores, no obstante va a apoyar la declaración pero, también, se podría hacer extensiva a otros lugares (Ucrania, Congo, Africa.....)

Nekane Pérez le contesta:
No es así pero si él trae alguna propuesta estaría encantada de discutirla y tratarla.

Mantienen un pequeño debate sobre la situación mundial que finaliza con la invitación de la Alcaldesa a que traiga propuestas al respecto.

Horren ondotik, aho batez, onartu dute Tras ello, por unanimidad, aprueban la adierazpen instituzional hau, ondoan, declaración institucional, la cual se transcribe transkribatzen dena:

1948an, izugarritzko basakeri militar kanpaina baten bidez, indar armatu sionistak, britainiar inperioaren laguntzarekin 750.000 pertsona kanporatu zituzten beren lurra eta herrietatik, Palestinako %70ko lurraldean Israelgo estatu kolonialista ezartzeko. Aurten, maiatzaren 15ean operazio edo garbiketa etniko honen 66 urteurrena bete izan da, Hondamendia edo arabiarrez **Al Nakba** deitua dena.

Israelek aurrera jarraitzen du bere epe luzerako garbiketa etnikoko planarekin, diskriminazio sistematikoa eta planifikatua den bere apartheid politikarekin bertako biztanleria kanporazteko, 800 km dituen Lotsazko bere Harresiarekin, kontrol-puntu iraingarriekin, Palestinako lurra eta uraren indarrezko ebasketekin, atxiloteta administratiboekin, bereizkuntzarik gabeko torturaren erabilerarekin, gizagabetasun okupazio militarrekin eta etxebizitza-eraste politikarekin. Eguneroko eskubide urraketaz gain uztailaren 8an Israelek **Hegi Babesgarria** operazioa jarri zuen martxan Gazaren aurka, 2012az geroztik eginiko handiena da. Hegi Babesgarria izeneko operazio hau Zigor kolektibo bat da, ondorioak izugarri larriak, besteak beste hildakoak eta zaurituak, dagoeneko 192 palestinar hil eta 1410 zaurituta suertatu dira, %77a zibilak izanik. Egiptok mahai gainean jarritako su-etena onartu eta sei ordura, Gaza bonbardatzeari ekin dio Israelek berriro, militarren bozeramaile batek jakinarazi duenez. Airez ari dira eraso egiten orain baina operazioa martxan jarri zenetik bide guztiak erabili dituzte genozidioa gauzatzeko.

Israelek Nazioarteko Zuzenbidea bete dezan eta entitate sionistak inposatutako Apartheid sistema salatzeke asmoz, Euskal Herriko hainbat erakunde, jendarte mugimendu, sindikatu eta partidu politiko Boikot, Desinbertsioak eta Santzioak kanpaina egituratzen ari gara, munduko herriak inplikatzeko saiateren den ekimen bat, geuk baitugu palestinarrei ukatzen dieten ahotsa.

BDS Kanpaina biolentziarik gabeko erresistentzia zibileko tresna dela azpimarratu nahi dugu, 2005eko uztailaren 9an hasia, 194 erakunde palestinar baino gehiagok abiatuta eta Hegoafrikak apartheid-i boikot nazioarteko kanpainan oinarrituta, ondorengo helburuekin: Palestinaren okupazioa bukatzea eta Harresia desegitea; errefuxiatu palestinarren itzultzeko eskubidea onartzea; eta Israelen bizi diren israeldar-palestinarrei eskubideen berdintasuna bermatzea. Ekimen hau gero eta babes gehiago dauka nazioarteko komunitatearen aldetik, baita Israeleko gizartearen eta komunitate judutarren pertsona esanguratsu batzuen partetik ere, Judutar Antisionisten Nazioarteko Sareak (IJAN) edo intelektualek edo artistek, haien artean Ilan Pappé, “Palestinako garbitze etnikoa” liburuaren egilea den historiagile israeldarra eta Naomi Klein, idazle eta kazetari kanadarra.

Israelen aurkako BDZ kanpaina ez da kanpaina arrazista; kolonizazio, Apartheid eta garbiketa etnikoaren kontra zuzendutako kanpaina da. Horregatik BDZ kanpaina antisemitizat jotzea ez du zentzurik: propaganda sionista beti saiatu da antisemitismoa eta antisisionismoa nahasten, kontzeptu biak guztiz aurkakoak izanik. Antisemitismoa arrazismo forma bat da eta jazarria eta zigortua izan behar da, baina antisisionismoak estatu Israeldarraren definizio etniko-konfesionala zalantzan

ipintzen du eta Israeleko hiritar arabiarrek pairatzen duten arrazako eta erlijioeko irizpideetan oinarritutako bereizkeria instituzionala eta legalari aurre egiten dio.

Gure jendarteetan lobby sionista sustatzen duten hainbat entitate BDS kanpaina eta berau bultzatzen duten eragile eta pertsonak kriminalizatzen ari dira (bai Israelen eta baita Europan ere) Palestinako okupazioa zilegiztat eta normalizat hartzeko helburuarekin.

Hau guztia kontuan izanik eskatu egiten dugu hurrengo Adierazpen Instituzionala Osoko Bilkuran onartzea:

1. Berako Udalak Israelek martxan jarritako Hegi Babesgarri izeneko operazioa, giza eskubideen urraketa larritzat jotzen du, irmoki gaitzetsi egiten du eta premiatzen du berehala geldiarazi dezan.
2. Udal honek Palestinarekiko elkartasuna adierazten du, eta Israelgo estatuari nazioarteko legediarekin bat datozen eskaera hauek egiten dizkio:
 - a. Okupazioa eta arabiarren lur guztien kolonizazioa bertan behera uztea, eta Harresi ilegala botatzea
 - b. Israelen bizi diren hiritar arabiar-palestinarren oinarrizko eskubideak onartzea eta erabateko eskubide-berdintasuna bermatzea
 - c. Errefuxiatu palestinarrak etxera eta jaioterrira bueltatzeko duten eskubidea errespetatu, babestu eta sustatzea, halaxe zehazten baitu NBEaren 194 ebazpenak
 - d. NBEaren kontalarien arabera gerra krimenak burutu dituztenek krimen horientatik erantzun dezatela nazioarteko auzitegietan bermatzea
3. Berako Udalak Nazioarteko komunitateari eskatzen dio baliabide posible guztiak jar ditzala Israeli presionatzeko bere legezko beharrak bete ditzan; Zuzenbidezko Estatu baiezatzeta eta bakea eta populazio palestinarraren segurtasuna bermatzea, herri palestinarraren funtsezko giza eskubideen errespetua barne. Zentzu horretan eta Israelek palestinarraren herriarengan apartheid-politika luzatzen duen bitartean BDZ (Boikot, Desinbertsio eta Zigorrak) kanpainari bere atxikimendua berresten du.
4. Udal honek bere auzotarrak gonbidatzen ditu Gazaren kontrako beste eraso israeldar hau eta palestinarrak pairatzen duten zigor kolektiboa salatzeko antolatzen diren jardueretan parte hartzera herri palestinarrarekin beren elkartasuna eta hurbiltasuna azalduz.
5. Berako Udalak Espainiako Gobernuari eskatzen dio, Kanpo Arazoetako Ministerioaren bidez igor dezan adierazpen hau Israelgo erakunde eskudunetara. Halaber, erakunde horiei dei egiten die, hartutako konpromisoak bete ditzaten, eta herri palestinarraren giza eskubideak ez urratzea berma dezaten, herri hori edozein amaiera-akordiotarako alderdi funtsezkotzat hartu behar baita.

Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat eman du 20:05etan.

No habiendo más asuntos, la Alcaldesa levanta la sesión a las 20:05 horas.

O.E. ALKATEA/ V.B. LA ALCALDESA
M^a Sol M. Taberna Irtzoki

IDAZKARIA/ LA SECRETARIA
Pilar Chueca Intxusta